



LAN ETA  
GIZARTE GAIETARAKO  
MINISTERIOA

GIZARTE-ZERBITZUEN, FAMILIEN  
ETA EZINTASUNEN ESTATU  
IDAZKARITZA

FAMILIEN ETA HAURTZAROAREN  
ZUZENDARITZA NAGUSIA

HAURTZAROAREN BEHATOKIA

# HAURTZARO ETA NERABEZAROARI BURUZKO PLAN ESTRATEGIKO NAZIONALA 2006-2009

**Ministro Kontseiluak 2006ko ekainaren 16an  
hartutako Erabakiaren bidez onetsita**



Agustin de Bethencourt, 4. zk.  
28071 MADRIL  
TF.: 91 363 81 93  
FAX: 91 363 81 20



## **ERAKUNDE-AURKEZPENA**

2006 – 2009rako Haurtzaro eta Nerabezaroari buruzko Plan Estrategiko Nazionala, Espainiako erreinuan ezaugarri horiekin egin den lehenengo plana da. Gobernuak berak bultzatu du Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren bitartez, eta Autonomia Erkidegoen, Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioaren (FEMP) eta elkarte-mugimenduaren laguntza izan du.

Planak haurtzaroaren eta nerabezaroaren ongizatea sustatzea du helburu, betiere haur eta nerabe horien beharrak eta interesak kontuan izanik, eta bizi-kalitatea eta gaitasunen garapen osoa lortzeko helburuarekin, beren eskubideen subjektu aktiboak baitira.

Dokumentu honek gai horretan eskumena eta erantzukizuna duten Erakunde eta Entitate guztien sinergiak biltzen ditu, eta funtsezkoa izateaz gain, aurrerapauso handia da ere bada haurtzaroari buruzko politikak planifikatzeko orduan.

Orain arte Espainiak ez zuen Haurtzaro eta Nerabezaroari buruzko Plan Estrategiko Nazionalik, non zenbait ekintza eta helburu finkatu dagozkien lurralde-eremuetan garatzen dituztenak osatzeko.

Planak, Haurraren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan bere gain hartutako konpromisoari erantzuteaz gain, bereziki, gobernu-programan hartutako konpromisoari erantzuten die, 18 urtetik beherako herritar guztiei eskubide berak izan ditzaten bermatzeko helburuarekin; gainera Planak haurtzaro eta nerabezaroarekiko guztiontzako arreta integrala proposatzen du, haien eskubideak bermatzeko, sustatzeko eta defendatzeko lan egiten dugun guztion inplikazioaren bitartez.

Planak, Haurtzaroaren Behatokian egindakoak, entitate hori haurtzaro-politikak proposatzeko eta hitzartzeko tresna erabilgarri eta eraginkor gisa sendotu du. Estatu Idazkaritza honetako Familien eta Haurtzaroaren Zuzendaritza Nagusiak koordinatu du dokumentua idazteko berariaz sortutako Lan-taldea. Lan-talde horretan 23 Erakundek hartu dute parte, horietako 11 Autonomia Erkidegoen ordezkartzan, 6 Estatuko Administrazio Orokorren ordezkartzan eta 6 gizarte-ekimenaren ordezkartzan.

Behatokiaren kide guztien ekarpenak eta iradokizunak izan dira kontuan, baita behatokiaren kide ez diren beste entitate batzuenak ere, adibidez Unibertsitatea, Herriaren Defentsaria, Adingabekoen Defentsaria eta Haurtzaroaren Gizarte-antolakuntzen hainbat foru.

Eragile guztien parte-hartzeak erakusten du guztiok arduratzen garela haurtzaroaren eta nerabezaroaren bizi-kalitatea hobetzeaz, eta I. Plan hau ardura horri erantzuteko tresna egokia izatea espero dugu. Gainera, ziur gaude



entitate horiek guztiek lagundu egingo diotela Haurtzaroaren Behatokiari Plan horren beharrezko jarraipena eta ondorengo ebaluaketa egiten.

Geure buruz zoriondu beharrean gaude hemen aurkezten dugun eta guztion babesa duen azken emaitza honengatik. Herritar txikienean eskubideak sustatzeko eta bermatzeko eraginkorra izan dadila nahi dugu.

Amparo Valcarce García  
Gizarte-zerbitzuen, Familien eta Ezintasunen  
Estatu Idazkaria



## **AURKIBIDEA**

- I. Aurkezpena
- II. Oinarriak
- III. Gaur egungo egoeraren azterketa
- IV. Kontzeptu-eremua
  - Ildo orokorrak
  - Oinarrizko printzipioak
  - Egite-metodologia
- V. Jardueren tipologia
- VI. Helburu estrategikoak
- VII. Plan Estrategikoaren jarraipena eta ebaluazioa.
  - Jarraipen eta ebaluaketarako organoak
  - Planaren jarraipenerako erreferentziako adierazleak
- VIII. Aurrekontuaren kalkulua
- IX. Eranskina: Haurtzaroari buruzko Planak dituzten Autonomia Erkidegoen zerrenda



## I. AURKEZPENA

Haurtzaro eta Nerabezaroari buruzko Plan Estrategiko Nazionala planifikazio osorako eskema komuna da, zeinaren bidez haurtzaro- eta nerabezaro-politikak garatzeko hitzartutako lerro estrategiko nagusiak definitzen diren. Epe ertaineko tresna integratzailea da, haurtzaroan eta nerabezaroan eskubideen garapen osoa, lurraldeen arteko ekitatea eta aukeraberdintasuna lortzeko, betiere Autonomia Erkidego bakoitzaren berezitasunak eta autogobernua errespetatzen dituen eremu komun eta malguan.

Gure herrialdean, haurtzaro eta nerabezaroaren gizarte-ongizateari buruzko politikak lurralde-oinarri garrantzitsuak dute. Estrategia honek honako funtsezko dimentsio hauek ditu: administrazio eta gizarte-eragile guztiek lurraldean egiten dituzten jardueren aurrean koordinatzea, batez ere behar handiago duten eremu edo auzotan, eta haurtzaroari eta nerabezaroari arreta egiteko plan erregionalak edo lokalak etengabe ezartzea edo orokortzea. Hamahiru Autonomi Erkidegok eta hainbat toki entitatek badituzte horrelako planak.

Planaren iraunaldia 2006. urtetik 2009. urte amaiera artekoa da, eta *Erakunde bakoitzaren eskumen-mailaren ondoriozko jardueren ardatz komun eta osagarritzat hartu beharko genuke.*

Planaren diseinuan ikuspegi osoa eta orokortuarekin jarraitzen saiatu gara, Haurtzaroa eta Nerabezaroa bilakaera-etapa guztietan eta bizikidetzako eremu naturalean aztertuz, gizarteak eskaintzen dien aukerak kontuan izanik eta egon daitezkeen desberdintasunak konpentsatuz. Hori dela eta, Plan honek Estatu mailako gainontzeko planekin batera jokatzeko du, eta plan horiekin konpartitzen ditu biztanle horien berariazko alderdiak eta lurralde- eta material-eremuan bizi-kalitatea hobetzearekin lotuta dauden beste alderdi batzuk.

***Konstituzio Espainolak*** Estatuaren lurralde-antolaketa Espainiako Nazioa osatzen duten nazionalitateen eta lurraldeen autonomia-printzipioan eta denon arteko lagunkidetasunean oinarritzen du, eta horrek esan nahi du Estatuaren edozein lurraldetan eskubide eta betebeharrak berak bermatu behar direla.

*Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen, azaroaren 26koaren, Zio-agerpenak aditzera*



ematen du Estatuko Administrazio Orokorra, Autonomia Erkidegoen Administrazioak eta Toki-entitateen administrazioak aldi berean izatearen ondorioz –eremu subjektibo eta geografiko bakar batean jardunez–, beharrezkoa dela administrazio-zerbitzuak modu eraginkorrean herritarrengana hurbiltzea, eta helburu horrek, aldi berean, Administrazio Publikoen arteko harreman arina eskatzen du, baita elkarrekin jarduteko eremu juridiko bakarra ere, zeinaren bidez partikularrek edozein administrazio-entitatera joan daitezkeen ziur daudelako entitate horiek guztiek irizpide homogeneoen arabera jokatzeko dutela. Hori dela eta, *kooperazioak* konpartitutako eskumenen edo eremu fisiko bakar batean gauzatzen direnen buru izan behar du.

Azaldutako printzipioak kontuan izanik, haurtzaroaren eta nerabezaroaren garapenerako lan egiten duten erakunde guztientzat helburu komunak topatzen, eta inplikaturako erakunde eta tresna guztien koordinaziorako beharrezkoak diren bitartekoen definizioa egiten saiatu gara.

Haurtzaro eta Nerabezaroari buruzko Plan Estrategi Nazional honek honako helburua ere izan du: azken urte hauetan haurtzaroaren eremuan gure herrialdean haurren eskubideen defentsan lan egiten duten eragile guztiek gauzatu dituzten politikak aztertzea, Erakunde eskumendun guztien eta gizarte-ekimeneko Erakunde guztien konpromisotik abiatuta; hori haurtzaroaren eskubideen aldeko benetako ituna da. Planaren helburuak eta ekintzak –informazioaren trukean, lankidetzan eta elkarrekiko laguntzan, irizpide eta jarduketa komunetan, arazoei aurrea hartzean eta erronka berrietan oinarritutakoak –, balio erantsizat hartzen da haurtzaroaren eta nerabezaroaren arretan. Eta horri guztiari esker, asko indartu dira haurren eta nerabeen bizi-kalitatea sustatzeko azken hamarkadetan Espainian gauzatu diren politikak.

Hori dela eta, Plan Estrategikoaren helburua, batez ere, erakunde publiko zein pribatuen arteko lankidetzakultura sortzean oinarritzen da, haurtzaroaren eta nerabezaroaren eskubideen sustapen eta defentsarekin konpromisoa duten entitateen artekoa alegia. Horri esker, ditugun baliabideak hobeto aprobetxatuko ditugu eta behar ez bezala betetzen ez diren beharrak modu goiztiarragoan eta eraginkorrean antzemango ditugu.

Horretarako, honako ezaugarri hauek dituzten jarduerak edo neurriak garatu behar ditugu:

- Guztiontzako eta osatzeko ekintzak, lurralde-eremu bakoitzean legez haurtzaroaren eta nerabezaroaren eskumenen ardura duten erakundeek planifikatzen eta garatzen dituztenak osatzekoak.



- Haurtzaroaren eta nerabezaroaren eskubideek betetzeko lan egiten duten erakunde publiko eta gizarte-ekimeneko entitate guztiek elkarrekin egindako ekintzak.
- Haurtzaroaren eta nerabezaroaren oinarritzko eskubideen sustapena eta defentsa dela-eta, lurralde-ezberdintasunei aurrea hartzeko edo ezberdintasun horiek gainditzeko helburu duten ekintzak.

Ekintza guztiek haurtzaroaren eta nerabezaroaren bizi-kalitatearen gehikuntza iraunkorra izan behar dute helburu eta Haurraren Eskubideen Konbentzioa zuzentzen duten printzipioetan oinarritu behar dira; gainera, aldi berean, printzipio horiek Plan Estrategiko Nazional honen oinarritzko printzipiotzat hartu ditugu.

## II. OINARRIAK

1990etik, Espainiako Gorteek **Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa** berretsi zutenetik, gizarte-eszenatokia eta haurren eta nerabeen ordezkari izan da herritarren eta eskubideak dituzten subjektu sozialen rolerak, eta gizartean gero eta eginkizun aktiboago hartu dute bere gain. Aldi berean, helduek gero eta kontzientzia handiagoa dute haurtzaroaren identitate, gaitasun, arrisku eta beharrei buruz.

Hona hemen Haurtzaro eta Nerabezaroari buruzko Plan Estrategiko Nazionalaren jatorria:

- Haurtzaroaren aldeko Mundu Mailako Gailurra, 1990. urtekoa. Gailurrak berea egin zuen Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989ko azaroaren 20an Asanblada Orokorra onetsitakoa.
- Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa Aplikatzeko II. Txostenari, 2002ko ekainekoari, Haurren Eskubideen Batzordeak egindako gomendioak.
- Honako dokumentu honetan jasotako Aitorpena eta Ekintza-plana: "*Un mundo apropiado para los Niños y Niñas*", 2002koa.

2002ko maiatzean, Estaturburuek eta Gobernuburuek eta haurtzaroari buruzko Nazio Batuen Asanblada Orokorra egindako bilkuren epe berezian parte hartu zuten Estatuko ordezkariak –eta Espainiak eginkizun garrantzitsua izan zuen Europar Batasuneko Lehendakari izan baitzegoen–, **Mundu mailako Aitorpena eta Ekintza-plana** izenpetu zuten, honako



dokumentu honetan jasotakoa: ***“Un mundo apropiado para los Niños y Niñas”***.

Aipatutako Ekintza-plan horretan gobernuek plana aplikatzeko konpromisoa adierazi zuten, baita zenbait neurri hartzeko aukera ere, lege, politika eta ekintza-plan nazional eraginkorrak abian jarri ahal izateko eta baliabideak eskaintzeko, betiere haurren eskubideak gauzatzeko eta babesteko eta haien ongizatea bermatzeko helburuarekin. Gainera berea egin zuten zaintzeko eta ebaluatzeko sistema nazionalak egiteko konpromisoa, horrela bada, haurtzaroaren eta nerabezaroaren eremuan hartzen diren neurri guztien eragina egiaztatu ahal izateko.

Konbentzioaren aplikazioari buruzko Espainiako II. Txostena, 2002ko ekainean egindakoa, aztertu ondoren, haurtzarorako eta nerabezarorako identifikatutako erronkei dagokionez, **Haurren Eskubideen Batzordearen gomendioen** arabera, Espainiak “entitate publikoen artean zein haurtzaroa defendatzeko eta babesteko neurriak abian jartzeko nazio-, erregio- eta udal-entitate guztien artean koordinazio eraginkorra indartu eta ezarri behar du; gainera **haurtzaroari buruzko Estrategia orokorra** egin behar du, Konbentzioaren printzipioak eta xedapenak oinarritzat hartuta, eta haurtzaroari buruzko sektore-arteko politikak garatu eta aplikatu behar ditu”.

Hori dela eta, Batzordeak, Espainiak koordinazioa hobetzeko (batez ere Haurtzaroaren Behatokiaren bitartez) egindako ahaleginak onartzen baditu ere, jakinarazi du kezkatuta dagoela Espainian haurtzaro eta nerabezaroari buruzko politika orokorra ez dugulako. Haurren Eskubideen Batzordeak egindako ohar horiek guztiak, dagozkion gomendioekin batera, Haurtzaro eta Nerabezaroari buruzko Plan Estrategi hau egiteko erabili ditugu.

Ekintza-Plan Nazionalen arrakastarako ezinbestekoa den eta gainera Estrategia honek kontuan hartu behar duen alderdia honakoa da: haurrek eta nerabeek inplikatu eta parte hartu behar dute derrigorrez, bai diseinuan, bai ondorengo aplikazioan eta ebaluazioan. Beraz, Plan Estrategiko honen helburuetako bat haurrei bidea egitea litzateke, haiengan eragina duten gaietan parte-hartzeko aukera izan dezaten.

Hori dela eta, toki-eremuan ezinbestekoa da Gobernu Kanpoko Erakunde egin beharra, erakunde horiek sortzen baitituzte haurrei eta nerabeei entzuteko eta axola zaien gaiei buruz iritzia ematen uzteko gizarte-eremuak. Garrantzitsua da adingabeek zuzendutako entitateak bultzatzea, eta elkartzeko eskubideari laguntzea.

Amaitzeko, aipatu behar dugu Haurtzaro eta Nerabezaroari buruzko Plan Estrategiko Nazionala abian jartzearen ondorioz, bete egiten dugula 2005-





2006ko Gizarterako III. Ekintza-Planaren bitartez (2005eko irailaren 8an Ministro Kontseiluak onetsitakoa) gure gain hartutako konpromisoa betetzen dugula.

### III.- GAUR EGUNGO EGOERAREN AZTERKETA

Azken urte hauetan, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa onestu ondoren, munduan neska eta mutilen egoera asko hobetu da, zeren haurtzaroaren eta nerabezaroren eskubideak onartzeaz gain, asko handitu baita talde ahul honekiko gizarte-sentsibilizazioa.

Haurraren Eskubideen Batzordeak berariaz onartu du Espainiak aurrerapenak egin dituela Haurtzaroaren Eskubideak sustatzeko politikak garatzeko orduan. Onarpen hori Konbentzioaren aplikazioa dela-eta Espainiak aurkeztutako II. txostenari egindako **Azken Oharretan** agertu du Batzordeak.

Hala da, Batzordeak gure ustez aipatzeko modukoak diren zenbait lorpen aipatu zituen azken oharretan. Aipagarriak dira lorpen horiek haurtzaroaren politiken eremuan egindako bidea eta egungo egoera adierazten digutelako.

- **Legegintza** eremuan, maila nazionalean zein autonomikoan onestutako lege berriak barne-ordenamendua Konbentzioaren xedapenetara egokitzeko. Horien guztien artean honako hauek aipa ditzakegu:
  - *1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabeen Babes Juridikoari, Kode Zibilaren aldaketa partzialari eta Prozedura Zibilaren Legeari buruzkoa.*
  - *5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Adingabeen Erantzukizun Penala eta bere Erregelamendua arautzen duena (1774/2004 Errege-dekretua), baita Kode Zibilari egindako zuzenketak integritate sexualaren aurkako delituak (11/1999 Legea) eta tratu txarren biktimen babesa dela eta (14/1999 Legea).*

*Data horretatik aurrera, egokitzeko eta legegintza-aurrerapeneko lan horrekin jarraitu da, eta honako xedapen hauek aipa ditzakegu, beste batzuen artean:*

- *51/2003 Legea, abenduaren 2koa, ezintasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari, bereizketarik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa.*
- *1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurkako Babes osoko Neurriei buruzkoa.*
- *3/2005 Lege Organikoa, uztailaren 8koa, Botere Judizialaren uztailaren 13ko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duena, emakumeen sexu-organoen mutilazio praktikak Estatuko lurraldeaz kanpo jazartzeko.*
- *2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzakoa.*



- *Mendekotasun-egoeran diren pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzeko Lege-proiektua.*
- Koordinazioko mekanismoei buruz egindako gomendioei dagokienez, Batzordearen ustez onuragarria da Haurtzaroaren Behatokiaren sorrera (1999. urtean sortutakoa). Gainera Batzordeak aipatu du zenbait Autonomia Erkidegok erakunde edo zerbitzu batzuk sortu dituztela haurrentzako bereziki.
- Gainera azpimarratu egin ditu Espainiako Estatuak eta Autonomia Erkidegoek haurtzaroari eskainitako programak eta politikak, adibidez gizarte-zerbitzuak eskaintzekoak, pobreziarekin amaitzekoak edo egoera berezietan dauden familiei laguntzekoak eta, Batzordearen aurreko gomendioarekin bat etorriz, Gizarteratzeko, Gazteentzako eta haurtzaroan eta nerabezaroan eragin berezia duten beste alderdi batzuetarako Ekintza-Plan Nazionalak.
- Halaber, nabarmendu egiten du haurtzaroaren gaietaz arduratzen den Herriaren Defentsari-alboko postuaren sorrera, baita haurtzaroko eskubideen urraketaz autonomien eremuan arduratzen diren zenbait entitateen ezarpena ere.
- Espainiako Estatuak garapen bideko herrietako haur eta nerabeei laguntza handiago eskaintzen dietela adierazi zuen, eta bereziki aipatu zuen Espainia hasieratik LANEren Amerika Latinoan Haur-lana Erradikatzeko Nazioarteko Programarentzat baliabide gehien eman duen herrialdetako bat dela.
- Batzordeak adierazi zuen Espainiak lehena berretsi zituela Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren bi Protokolo Fakultatiboak; gainera LANEren 182. zenbakiko Hitzarmena ere berretsi zuen, haur-lanaren modu okerreneren debekuari buruzkoa alegia.

Espainian haurren eskubideak bermatzeko sortutako sistemaren alderdi onen onarpena aipatzen hasi behar badugu ere, Espainiako haurtzaroaren XXI. Mendeko erronka berrien ondorioz azaleratzen diren arazoak identifikatzea ere oso garrantzitsua da, horrela bada, arazo horiei estrategikoki hobe aurre egin ahal izateko. Gaintitzeke ditugun erronka horietako batzuk aipatuko ditugu, eta horien azterketa kuantitatiboa zehatza ondoren egingo dugu, VII. Kapituluaren adierazleen jarraipenarekin batera:

- **Haur-osasunaren** arretak aurrerapen handia izan du azken hamarkada hauetan. Estatuko Osasun Sistemak, beste faktore batzuekin batera (sozio-ekonomikoak batez ere), aldeko eragina izan du osasun-sisteman, eta horrela agertu da ohiko adierazleetan: haurren eta jaiotza-inguruko hilkortasunak murrizketa mailakatua izan du, gaixotze-



tasaren ereduak eta mediku-kontsulten arrazoiak asko aldatu dira, bizi-itxaropena handiagoa da, etab. Osasun Sistema Publikoaren finkapenak, haurren ospitale-sareak eta osasunaren lehen arretarako zentroek, tratatutako gaixotasun-ereduen aldaketa ekarri dute, beste aldaketa batzuen artean; hori dela eta, infekzio-gaixotasunen ordez beste prozesu ez transmitigarri batzuk agertu dira, eta nabarmendu dezakegu istripua haurren gaixotasunen eta heriotzaren arrazoi nagusietako bat dela.

Erronken atalen aipatu beharra dago nerabeen haurdunaldiek eta haurdunaldien borondatezko etenek kezkatzeko moduan egin dutela gora. Horrek adierazten du hausnarketa egin behar dugula nerabeek jasotzen duten sexu-heziketari buruz; horrela bada, saihestu behako ditugu gerta daitezkeen genero-indarkeria edo eta –mendekotasun egoerak, nahi ez diren haurdunaldi arriskutsukoak, GIB-HIESaren infekzioak eta sexu-transmisiozko beste gaixotasun batzuk.

Halaber, kezagarria da droga-kontsumoaren arriskuaz duten pertzepzio txikia, nerabeek drogen eskuragarritasunari buruzko pertzepzioa handiagoa duten eta kontsumoak nabarmenki gora egiten duen bitartean, batez ere alkoholaren eta kanabisaren kontsumoak; gainera gero eta gazteago hasten dira droga horiek hartzen.

Bestalde, gero eta gazteago hasten dira osasunerako arrisku-larriekin, elikadura-arazoekin gertatzen den bezala (adibidez, anorexia, bulimia edo osasuntsuak ez diren dietak). Gainera 18 urtetik beherako haurren gizentasun tasa oso handia denez, %14koa gutxi gorabehera, norbere eta besteen gorputza baloratzeko hezkuntza sustatu behar da.

Erronkei buruz egiten ari garen aipamen labur honetan, osasun mentaleko arazoez hitz egin beharko dugu, estimazio batzuen arabera 18 urtetik beherakoen %20k baitu arazorik. Osasun Publikoak erantzunak eskaini behar dizkie gaixo horiei, batez ere nerabeei, zerbitzuen eskuragarritasunari eta tratamenduen jarraipenari dagokionez.

- Espainian **hezkuntzaren** politika, 2002anartzelonaKontseiluak onestutako Europa osorako helburu komunekin bat etorritik, eskola-porrotari aurrea hartzeaz eta arrakasta sustatzeaz arduratzen da; hori dela eta, beharrezko baliabideak erabiltzen ditu eskolaratze goiztiarra lortzeko, ikasleek eskola bertan behera utz ez dezaten, desberdintasunak konpentsatzearen bidez dibertsitateari arreta egiteko eta hezkuntzako behar bereziak dituzten ikasleen, atzeritarren etab.en programen alde egiteko, biztanle guztientzat hezkuntza-kalitatea eta –ekitatea lortzeko helburuarekin.

16 eta 17 urte bitarteko gazteen eskolaratze-tasak asko egin du gora, derrigorrezko hezkuntza 16 urtera arte luzatu baita. Horri esker, biztanleen batez besteko hezkuntza-maila handitu da.



Hala ere, hezkuntza-sistemak erronka anitz ditu aurrean, eta horiei aurre egin beharko die. Hona hemen horietako zenbait erronka: ikasketak garaiz aurretik uzten dituztenen tasa handia; eskola-porrota; dibertsitateari arreta egiteko beharra, gero eta adingabeko atzerritar gehiago baitaude; lanbide-irteeretan berdinen eta desberdinen arteko indarkeria genero eta rol sexitak direla eta.

Erronka horiek jarduera ausartak eskatzen dituzte, ez soilik hezkuntza-administrazioenak, gizarte osoaren jarduerak ere beharrezkoak dira, gizarte horren etorkizuna gazteenen hezkuntzaren pean baitago.

- **Komunikabideak** eta, batez ere, informazio eta komunikazioaren **teknologia berrien** sorrera potentzial handiko fenomeno globala da, eta fenomeno horretan beharrezko arreta jartzen ez badugu, desberdintasun handiagoak sor ditzake, zulo digitala hiritarren hezkuntza- eta kultura-baliabideen arabera handituz. Haurtzaroari eta nerabezaroari dagokionez, erronka bikoitza dugu: alde batetik, teknologi horien ezagutza eta erabilera bermatzea ikaskuntzarako eta garapenerako tresna gisa, eta, beste alde batetik, erabilera horren baldintzak bermatzea, haurren eskubideak eduki bortitzen, arrazisten eta sexualen aurrean defendatzeko, batez ere haurrak eszena pornografiko edo bortitzen protagonista bihurtzearen aurrean. Hori dela eta, beste ekimen batzuk lantzen ari dira Administrazio Publikoen eta gizarte-ekimenaren laguntzarekin (Autorregulazio Kodea, Avanza Plana, etab.)
- **Bizitza familiarra eta laborala adiskidetzeko** politiken barruan honakoa dugu lehentasunetako bat: kalitatezko zerbitzu nahikoak eskaintzea, derrigorrezko eskolaratzeko adina ez duten hurrei beharrezko bermekin arreta egiteko amaren eta aitaren lanaldia irauten duen bitartean. Espainian 3 eta 5 urte bitarteko ia %100 haur joaten da haur-hezkuntzako zentzoren batera. Gainera enpresa-ehunak lanari eta familiari eskaintako denbora bateratzea errazten duten politika eta praktiken sustatzaile izan behar du.

Azken 15 urte hauetan 3 urtetik beherako hurrei arreta egiteko zerbitzuak gero eta gehiago eta kalitate handiagokoak badira ere, Autonomia Erkidegoek eta Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak egindako azken lanaren arabera, ez dugu kalitatezko eta dibertsifikatutako eskaintza nahikorik. Kezkagarriak dira lurraldeen arteko desberdintasunak, nahiz eta herrialde osoan %21eko estaldura osoa dugula kalkulatu dugun, eta kopuru hori 2004ra arte Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak esku-artean zituen zenbakiak baino handiagoa da (%12,6). Datu-ezberdintasun horiek sektorean 1990ean hasitako (eta oraindik doitzeko urratsean dagoen) arauketaren ondoriozko prozesuan duten jatorria. Europar Batasunak 2010 urterako %33ko estaldura finkatu du helburutzat.



- **Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren** aurkako borroka, esplotazio-egoeren jatorria izaten denez, leku nagusia izan behar du parte-hartzeko helburuen artean, azken Espainiako Erreinuaren Gizarteratzeko Ekintza-Plan Nazionalan finkatzen den bezala. Bizi-baldintzei buruzko 2004ko Inkestak (EIN, 2005) haur-pobreziari buruzko datu eguneratuenak ematen dizkigu, eta Inkestak pobrezia-atalasetzat hartzen du kontsumo-unitate bakoitzaren batez besteko diru-sarreraren %60. Estatistika horren arabera, Espainiako biztanleen %19,9 pobrezia-atalasearen azpitik baldin badago, 16 urtetik beherakoen zenbatekoa %24,3koa da (25,7 gizonezkoen kasuan eta 22,7 emakumezkoen kasuan).
- Eta ezin ditugu ahaztu **gizarte-arrisku eta –babes eza egoeran** dauden haurrak: babes ezaren eta haurren tratu txarren aurkako gizarte-sentsibilitatea handitu egin da, haur eta nerabeen aurkako indarkeria-mota guztiak antzemateko, jakinarazteko eta esku-hartzeko sistemak hobetu diren heinean. Baina beharrezkoa da beste ekintza batzuk sustatzea haurren tratu txarren ezagupena, prebentzioa eta horien aurkako esku-hartzea hobetzeko. Haurtzaroan eta nerabezaroan anitz dira arrisku-egoerak, haurren lanaren ondorioz aipatutakoekin batera, familia-ingurunearekin zerikusia dutenak (etxeko indarkeriarekin baldintzatuak), gutxiengo etnikoei dagozkienak, bakarrik dauden adingabeak atzerritarren prozesuekin lotutakoak, prostituzioa, gehiegikeria, haur-esplotazioa, etab. aipa ditzakegu.

Egoera horiei guztiei aurka egiteko eta haurtzaroaren eskubideak babesteko, adingabeen babeserako entitate publiko eta pribatu guztien ahaleginez gain, beharrezkoa da lege-eremua hobetzea gizarte-behar berrietara egokitzeko; horrela bada, genero-indarkeriaren aurkako Lege Organikoak finkatutako bideari jarraituko diogu. Halaber, gizarte osoaren sensibilizazioa hobetu behar dugu haur-gehiegikeria eta –esplotazio modu guztiekin amaitzeko (2006-2009rako haurtzaroaren eta nerabezaroaren esplotazio sexualaren aurkako II. Ekintza-planak, beste batzuen artean, ezartzen duen lehen berari jarraituz); gizonezkoak izaten dira gehienetan gehiegikeri eta esplotazio modu horiek gauzatzen dituztenak, beraz beharrezkoa da emakume, neska eta mutilen aurkako indarkeria zalantzan jartzen duen hezkuntza.

- Beste alderdi garrantzitsua Espainian **nazioarteko adopzioek** izan duten hazkuntzari dagokio. Gero eta herrialde gehiagok berrestu dute Hagako Hitzarmena eta, gainera, nazioarteko adopzioen eskaerak izugarri egin du gora; hori guztia erronka izango da adingabeen babeserako zerbitzuetarako, eta agerian jartzen du beharrezkoa dela adopzioaren osteko programak ezartzea, adingabeak gure gizartean ondo integratu daitezen eta adopziozko gurasoei behar duten laguntza



emateko. Gainera eragindako sektore guztien lankidetzaz eta parte-hartze handiagoa bermatu behar da Nazioarteko Adopzio Prozesuak hobetzeko. Horixe egiten du, adibidez, orain dela gutxi sortutako Nazioarteko Adopzioen Aholku Batzordeak.

- Bestalde, **Gazte-justiziak** beste erronka batzuk aurkezten dizkigu. 5/2000 Lege Organikoan, eta lege hori garatzen duen Araudian (1774/2004 Errege-Dekretuaren bidez onestu zena) finkatzen den esparru juridikoari esker, zigor eta hezkuntza esku-hartzearen aukera dago, Espainiak sinatutako nazioz gaindiko arau eta xedapenekin bat etorriz. Baina sistema horretan gero eta adingabeko arau-hausle gehiago ditugunez, beharrezkoa da beste azterketa batzuk egitea, bai fenomenoari buruzkoa, bai esku-hartzeko sistemei buruzkoa; horrela bada, praktika onak garatu ahal izango ditugu eta arazo hori gutxitu ahal izango dugu prebentzioko lanaren (batez ere 14 urtetik beherakoekin), hezkuntzaren eta gazte arau-hausle horien gizarteratzearen bidez.
- **Nazioarteko lankidetzaren** eremuan ere migrazio-prozesuekin lotutako zenbait erronka proposatzen ditugu, prozesu horietan gero eta jende gazteagok parte hartzen baitu; baita haurtzaroaren babeserako eta bi alderdien zein alderdi anitzen arteko lankidetzarako nazioarteko neurriak ere proposatzen ditugu, batez ere Europako herriekin, Magrebekin eta Amerika Latinarekin. Beraz, beharrezkoa da zenbait sistema hobetzea; hau da, munduan haurtzaroaren egoerari buruzko informazioa trukatzekoak eta haurtzaroaren eskubideak sustatzeko eta babesteko praktika onenei buruzkoak; horrela bada, gure inguruko herrialdetan adingabekoen babeserako zerbitzuak sendotu ahal izango ditugu.
- Amaitzeko, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa modu eraginkorrean betetzeko gehiago garatu beharreko alderdia **haurren parte-hartzearekin** lotuta dago eta, bereziki, haiei axola zaien gaietan parte hartu behar lukete. Horretarako, erraztasunak eman behar ditugu haien iritzia entzun eta kontuan har ditzagun, batez ere haurren bizitzan garrantzi berezia duten erabaki profesionalei dagokionez, adibidez, internamenduak, adopzioak, abegiak, etab. Eskubide hori abian jartzeko beharrezkoa da eskubide eta erantzukizun horietara eta haurren beharretara hurbiltzeko kultura aldatzea, eta ez da nahikoa maila juridikoan agertzea, gizarteratze eremu guztien eguneroko bizitzara zabalduta behar baita.



#### IV.- KONTZEPTU-EREMUA

##### Ildo orokorrak

Plan Estrategikoa Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren printzipio eta edukietan oinarritzen da, eta bere gain hartzen du Konbentzioa eraginkor egiteko konpromisoa, horretarako hantxe proposatzen diren neurriak aplikatuz. Dagoeneko adierazi dugun bezala, Plan Estrategikoak haurtzaroaren eta nerabezaroaren arreta sustatzea du helburu guztiontzako eta diziplina anitzeko metodoak erabiliz; horretarako haien eskubideak bermatzeko, sustatzeko eta defendatzeko lanean ari diren eragile guztiak modu eraginkorrean koordinatuko ditu Planak.

Gainera Plana koherentea da Konstituzio Espainolak adierazten dituen oinarritzko printzipio eta eskubideekin, baita estatu zein autonomi mailan dugun arau-eremuarekin ere.

Plan Estrategiko honen xedea 18 urtetik beherako haur eta nerabe guztiak dira, Konstituzio Espainolaren 12. artikuluan eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 1. artikuluan aipatzen denarekin bat etorritik, zeinean esaten baiten hamazortzi urtetik beherako edozein gizaki haurra dela, aplikatu ahal zaion legearen arabera adin-nagusitasuna gazteago lortu ez badu behintzat.

Honatz Plan honen helburua: botere publikoetatik, familien, haurren eta inplikaturako eragile eta entitate guztien laguntzarekin, haurren ongizatea eta gizarte-ingurune onuragarria eta zuzena lortzea, haien beharrak asetzeko eta gaitasun guztien garapen osoa lortzeko modukoa, beren eskubideen subjektu pasiboak baitira; horretarako batez ere guztiontzako politika eta jardura integralak garatuko dira.

Helburu horiek lortzeko, haurtzaroan gizarte-inbertsio egitearen beharraz eta onuraz hausnarketa egin beharko genuke. Haurtzaroan egiten den gizarte-inbertsioa, hain zuzen, gizarte osoarentzat ondorio positibo gehiago ekartzen dituen inbertsioa da. Inbertsio horrek eragin handia du herriaren garapen sozial eta ekonomikoan eta, halaber, erreminta estrategikoa da pobrezia gorpil zoroarekin amaitzeko eta desberdintasuna gutxitzeko.

Gainera Plana bera haurtzaroaren eskubideen sustapena eta defentsa hobetzeko aukera izan dadila nahi dugu. Hori dela eta, eta Oinarrietan aipatu den bezala, oso kontuan izan ditugu Haurren Eskubideen Batzordeak egindako Oharrak eta Gomendioak, Konbentzioaren aplikazioa dela-eta Espainiak aurkeztutako II. txostenari egindakoak alegia.

Aurrekoarekin bat etorritik, Haurtzaro eta Nerabezaroari buruzko Plan Estrategiko Nazionalak zenbait neurri proposatzen ditu jarraian aipatzen



ditugun zailtasunak gairitu ahal izateko, eta kontuan hartzen ditu, beste batzuen artean, Haurren Eskubideen Batzordeak egindako honako gomendio hauek:

1. Haurtzaroari buruzko legegintza-aldarrikapenean aurrera egitea, horrek eskubideak benetan gauzatzen direla adierazten baitu, eta eremu zibilean agertzen diren gutxieneko adinak berraztertzea.
2. Haurtzaroarentzat sektore-arteke politikak gauzatzea eta koordinazioa hobetzea, nazio zein autonomi mailan ekintza integratua bermatu ahal izateko. Ekintza integratu hori haurtzaroarentzako politika orokor baten bidez zehaztea.
3. Autonomia Erkidego guztietan haurtzaroa babesteko prozedura guztiak gutxieneko arau komun batzuetan oinarritzen direla zaintzea, eta arau horiek adingabekoekiko interes nagusiarekin bateragarri izan behar dira. Horrela bada, berdintasuna bermatu behar dute zerbitzu maila bera eskuratzeko orduan eta ez du axola izango non bizi diren.
4. Datuak biltzeko eta aztertzeko mekanismoak hobetzea, eta 18 urtetik beherako biztanleen datuak Konbentzioaren eremu guztien arabera sistematikoki bereiziko ditugu; gainera arreta berezia izango dute laguntza handiagoa behar duten taldeek.
5. Konbentzioa, Espainiak aplikazioari buruz egindako Txostenak eta Haurren Eskubideen Batzordearen gomendio eta oharrak haur, nerabe, iritzi publiko eta talde profesionalen artean zabaltzea.
6. Konbentzioaren printzipio guztiak legean, politiketan eta haurtzaroari buruzko planifikazioan sartzea, estatu-mailan, autonomia-mailan zein maila lokalean.
7. Arreta berezia eskaintzea ijito etniko adingabeei, migratu duten langileen seme-alabei (batez ere haien egoera legearekin bat ez datorrenean) eta bakarrik dauden atzerriko haurrei, bermatzeko berdintasun-baldintzetan sartzen eta integratzen direla osasun eta hezkuntzako zerbitzu egokietan.
8. Haurren tratu txarren errealitatea hobeto ezagutzea, eta tratu txarrak antzemateko, jakinarazteko eta horien aurrean esku-hartzeko tresnak garatu eta ezartzea; tresna horiek gaian eskumena duten entitate guztientzako gutxieneko baldintza batzuetan oinarritu behar dira. Arreta berezia eskaintzea haurren lanari, sexu-abusuari eta haur-prostituzioari.
9. Zenbait ekintza garatzea nerabeen osasunean eragin txarregi duten egoerak gaintzeko.
10. Beharrezko ekintzen garapena sustatzea 5/2000 Lege Organikoa modu eraginkorrean aplikatua izan dadila eta legearen izaera hezitzailea mantentzeko. Lege Organiko horrek adingabekoen erantzukizun penala arautzen du.





## **Oinarrizko printzipioak**

Plan Estrategiko hau Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren honako printzipio araugile hauetan oinarritzen da:

1. **Haurraren interes nagusiaren** printzipio. Horren arabera gizarte ongizaterako erakunde publiko zein pribatuek, auzitegiek, agintari administratiboek edo legegintzako entitateek hurrei buruz hartzen dituzten neurri guztietan lehentasunezko arreta izango dutela: haurraren interes nagusiari erantzutekoa alegia. Horren ondorioz, haurrari ongizaterako beharrezkoa duen babes eta zaintza ziurtatuko zaio, kontuan izanik gurasoek, tutorek edo legearen aurrean haurraren ardura dutenek dituzten eskubide eta betebeharrak. Eta helburu horrekin hartuko ditugu legegintza- eta administrazio-neurri guztiak.
  
2. **Bereizketarik ezaren printzipioa**. Printzipio horren arabera, haur eta nerabe guztiei aplikatu behar zaizkie eskubide guztiak, arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo bestelako iritzia, jatorri nazional, etniko edo soziala, egoera ekonomikoa, ezintasuna, jaiotza edo haurraren, gurasoen edo legezko ordezkarien beste edozein egoera edozein izanda ere.
  - a. **Gizarte-berdintasuna** sustatzea, babes-ezaren arrisku egoeren aurrean prebentziorako mekanismoak ezarriz, eta haurrak babestu behar dira edozein abusu-, abandonu-, tratu txar- tortura-, sexu-esplotazio-, lan-esplotazio-egoeren aurrean eta gerretan edo edozein gizarte-gatazkan ezingo dute parte hartu. Garrantzi esplizitua ematen zaio aukera-berdintasuni eta **gizarteratzeari** buruzko alderdiei.
  - b. Ezin dugu ahaztu **genero-ikuspuntuarekin** jarraitzea garrantzitsua dela. Haurtzaroarekin eta familiekin lan egiterakoan, lotu behar dugu erabakiak hartzeko orduan neskek eta mutilak parte-hartze berdina izan dezaten, rol estereotipatuak esleitu gabe. Hezkuntza eredu ez sexistatik abiatuta hezi behar da, haien beharrak eta gizartean izango duten funtzioa kontuan hartzen duen eredu, betiere egon daitezkeen behar diferentzialak errespetatuz.
  
3. Haurrek **bizitzeko eta gaitasun guztien garapen osorako** duten oinarrizko eskubidea bermatzea. Horretarako honako hauek eskuratzeko gai izango direla bermatu behar dugu: elikadura, osasuna, hezkuntza, etxebizitza eta, azken buruan, bizitza-ingurune duinean gara dadila kontzeptu holistikoa batetik abiatuta, beharrezko baliabideak eta laguntzak bermatuz eta edozein traba kenduz.



Haurren gizarteratze prozesu integrala, ingurunean egiten dituen elkarrekiko elkarreraginen barruan gertatzen da. Hau da, neskatila edo mutiltxoa gizarterean jaiotzen da, gizartea familia-eredu anitzez osatuta dago, eta hantxe enplegu, etxebizitza, aukera-berdintasun, hezkuntza-baliabide, osasun-baliabide, gizar-te-baliabide, etab.en politikek haur horien babeserako aukerak izango dira, politika horiek duten egonkortasun eta bermeen arabera.

4. **Parte-hartzeko** printzipioa. Printzipio horren arabera haur guztiek ingurunean paper aktibo eta protagonista bere gain hartzeko eskubidea dutela, eta haien gaitasunak garatzen diren neurrian, axola zaien gaiei buruzko iritzia izateko eta iritzi hori askatasunez emateko eskubidea dute; eta iritzi horiek behar bezala hartuko dira kontuan adina eta heldutasuna kontuan izanik. Gainera gizarterean parte hartzeko aukerak eman behar zaizkie. Parte-hartze horrek agerian egon behar du familian, udalerrian, eskolako ordezkari-tza-entitateetan, elkarteetan, etab.etan eta, baita Plan Estrategiko honetarako proposamenak egin eta aurkezteko orduan ere.

### **Plan Estrategia egiteko metodologia**

Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak erabaki zuen Plana Haurtzaroaren Behatokiaren eremuan egitea, Behatokiak Haurtzaroaren Eskubideen sustapen eta defentsaren alde lan egiten duten Entitate publiko zein pribatu guztien parte-hartzea bermatzen baitzuen eta, gainera tresna ezin hobea baita plana diseinatze, egiteko, jarraitze eta ebaluatze.

Plana "ad hoc" lan-taldeak egin du eta, "haurtzaro eta nerabe-zaroaren estrategia integrala egiteko oinarriak" izenekoaren azterketatik abiatu zen. Plana egiterakoan, inplikaturako Ministerio guztietako, Autonomia Erkidegoetako, Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioko eta GKEtako teknikari batzuek, unibertsitateko zenbait adituk eta gizar-te-eragile batzuek hartu dute parte:

- Hasteko eta behin, Plan Estrategikoan koordinatzailea **Gizarte-Zerbitzuen, Familien eta Ezintasunen Gizarte Idazkaritza** izan da. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioko beste zuzendaritza-zentro batzuei ere galdetu zaie, adibidez Gazteen Institutuari, Emakumeen Institutuari eta Ezintasunak dituzten Pertsonen Arreta egiteko Errege-Patronatuari.
- Estatuko Administrazio Orokorreko erakundeei dagokionez, honako hauen laguntza izan dugu: Hezkuntza eta Zientzi Ministerioa, Osasun eta Kontsumo Ministerioa eta Estatistikako



Instituto Nacionala. Gainera gainontzeko Ministerioei ere galdetu diegu eta parte hartzeko aukera eman diegu.

- Autonomia Erkidegoei dagokienez, Adingabekoen Babesaren ardura duten Sailek parte hartu dute, eta Sail horiek Autonomia-administrazioetan Haurren Eskubideekin lotutako jarduerak egiten dituzten beste Sailen erreferentea dira.
- Gainera Toki Administrazioen inplikazioa beharrezkoa da, haur eta gazteengandik hurbilago baitaude, eta inplikazio hori Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioaren bitartez lortu da.
- Hirugarren sektoreak historikoki garrantzi handia izan duenez bai haurren ongizatearen alorrean, bai aurkezten diren arazoak antzemateko, haiei arreta egiteko eta konpontzeko orduan. Beraz Proiektu honetan ordezkari garrantzitsua izan du Haurtzaro Entitateen Plataformaren bitartez. Entitate horretan 37 haur-elkarte daude. Gainera Gurutze Gorriak, FAPMIK, Aldeas Infantiles SOSeK eta UNICEFeko Espainiako Komiteak zein Espainiako Gazte-Kontseiluak hartu dute parte.

Ekintza-Plan Nazionalaren arrakastarako ezinbestekoa da haur eta nerabeen inplikazioa, bai plana diseinatzeko eta egiteko, bai ondorengo jarraipena egiteko. Gainera Estrategia Nazional honek ezin du alderdi hori alde batean utzi.

Hori dela eta, Plana egiteko orduan, oraindik nerabe ez diren ikasleen laguntza izan dugu, zenbati inkesta, tailer eta eztabaida-talderen bitartez. Gainera lana baliatu egin da Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak eta Haurtzaro Entitateen Plataformak batera egindako hitzaldi eta foroetan agertu diren ekarpenetaz; hitzaldi eta foro horiek lankidetzarako eta haurren parte-hartzerako bideak sendotu dituzte.

Haurtzaroaren Behatokiko kide direnen parte-hartzeaz gain, honako hauei ere galdetu egin diegu eta lagundu egin digute Plan hau diseinatzen eta egiten: haurtzaroaren aldeko Planean ezarritako neurri guztiak egiteko orduan, gure ustetan eginbehar garrantzitsua duten erakunde eta entitate guztiak (Haurtzaroaren aldeko Sare Lokala, Elkargo Profesionalak, Haurren Eskubideen Defentsari edo Defentsari-alboak, unibertsitate-aituak eta beste Haurtzaroaren Behatoki lokal eta autonomiko batzuk).

Planaren beharrezko jarraipen eta ebaluazioari dagokionez, hobeto azalduko dugu VII. Atalean.



## V.- JARDUEREN TIPOLOGIA

Administrazio publikoen eta gainontzeko gizarte-eragileen arteko elkartasunaren, kooperazioaren eta lankidetzaren ikuspuntua berea egiten duen plan honek honako helburua du: lurralde-oreka sustatzea, non pertsona guztiak zerbitzuak eskuratzeko aukera berdintasuneko baldintzetan izango duten, bakoitzaren bizilekua kontuan izan gabe. Horrelako ezaugarriak dituen plana honako jarduera-mota hauen bidez gauzatu behar da:

- Iturri guztietatik datorren informazioa biltzeko eta aztertzeko ekintzak, gure herrialdeko haurren bizi-kalitatearen egoera eta gertatzen diren aldaketen egoera ezagutzeko.
- Haurtzaroarekin zerikusia duten gaur egungo informazio-sistemak eta adierazleak hobetzeko ekintzak, baita haurrengan eragina duten gizarte-politiken inpaktua ebaluatzekoak ere.
- Haurtzaroaren eremuan Administrazio Publikoek abian jartzen dituzten neurri eta jardueri buruzko informazioa trukitzea eta biltzea helburu duten ekintzak.
- Entitate publiko eta gizartearen arteko informazioaren trukerako foroak eta komunikazioa sustatzen duten ekintzak.
- Komunikabideetan haurtzaroaren gaia lantzeko moduaren jarraipena egiteko ekintzak.
- Haurtzaroaren eskubideak bermatzeko politika publikoak direla-eta, gomendio teknikoak egitera bideratzen diren ekintzak.
- Haurtzaroari buruzko gehiago jakiteko helburu duten ikerketen, azterketen eta txosten teknikoek gauzapena sustatzea; arreta berezia eskainiko zioa laguntza gehiago behar duten taldeen arretaren kalitatea hobetzeko helburu duten ikerketa, azterketa eta txosten teknikoak.
- Norberaren zein beste batzuen ikerketen bidez ikasitakoa guztioi zabaltzeko helburu duten ekintzak, informazio hori argitaratuz edo jakinaraziz. Gure ustez, hori ezinbestekoa baita ekintzak egin ahal izateko gure helburu den errealitatearen ezagutza zientifikoan oinarrituz.
- Haurtzaroaren behar eta eskubideei buruzko gizarte-sentsibilizazioa sustatzeko ekintzak, horretarako informazioa zabalduz.



- Haurren ongizatearen ardura duten profesionalen artean prestakuntza, birziklatzea, topaketa eta esperientzien zein ezagupenen trukea sustatzen duten ekintzak.

Goian azaldutako ekintza horien guztien edukia *guztion intereserako helburutzat* har dezakete Haurtzaroaren Eskubideen sustapen eta defentsaren eremuan lan egiten duten Administrazio Publiko eta Entitate guztiek.



## VI. HELBURU ESTRATEGIKOAK

Aurreko eremuari jarraituz, honako helburu estrategiko hauek zehaztu ditzakegu:

1. Informazioko sistema iraunkorra eta partekatua finkatzea, Espainian haurtzaroaren egoera hobeto ezagutzeko helburuarekin.
2. Haurtzaroaren politikak hobetzea Administrazio Publikoen eta inplikaturako gainerako eragile eta entitateen arteko (bai eremu nazionalakoa, bai nazioarteko lankidetzako eremukoak) koordinazio eta lankidetzaren bitartez.
3. Familientzako laguntzeko politiken sustapenean aurrera egitea; horrela bada, haurrak hazteko eta zaintzeko, haurren garapen pertsonala bultzatzeko eta haren gaitasunak sustatzeko orduan familiek duten erantzukizuna gauzatzen lagunduko zaie. Gainera lan-mundua eta familiarena adiskidetzeko aukera erraztu behar zaie.
4. Haurtzaroaren eta nerabezaroaren eskubide, betebeharrak eta interesei buruzko sentsibilizazioa sustatzea; horretarako gizarteratzeko eta komunitateko gizarte-sareetako eszenatokitik inplikaturak dauden eragile guztiak mobilizatu behar ditugu.
5. Komunikabideetan eta teknologia berrietan haurtzaroaren eskubideak eta babesa sustatzea.
6. Haurtzaroaren eta nerabezaroaren gizarte-arreta eta esku-hartzea sustatzea arrisku, babes-eza edo urritasun egoeretan edo eta gizarte-bazterketa gertatzen denean. Horretarako kalitateko irizpide komunak eta praktika ebaluagarri hobeak ezarri behar dira.
7. Haurtzaro eta nerabegaroko taldeetan jarduerak areagotzea, prebentzioko eta errehabilitazioko mekanismoak ezarriz gizarte-gatazka egoeren aurrean.
8. Kalitateko hezkuntza bermatzea guztientzat. Hezkuntza horren ezaugarriak honako hauek izan behar dira: balioetan hezteko, dibertsitateari arreta egitea eta genero-ikuspegitik berdintasunean aurrera egitea; gainera kultura arteko hezkuntza eta gutxiengoekiko errespetua sustatu behar du, desberdintasunak konpentsatu behar ditu eta hasierako urteetatik nerabegarora arte gaitasunen garapen handiena ziurtatu behar du etengabeko arretaren bitartez.



9. Haur eta nerabeentzako osasunaren alorrean prebentzio, sustapen eta babeserako esku-hartzeak bultzatzea, baita istripuen prebentziorako esku-hartzeak eta urritasunenak sortzen dituzten beste arrazoi batzuen eremukoak ere, afektibitate eta sexu hezkuntzako alderdiak eta kontsumo arduratsurako hezkuntzako alderdiak barne. Gainera arreta berezia jarri behar da haurtzaroko eta nerabezaroko urritasunen diagnostiko eta tratamenduan eta adimen-osasunean.
10. Haurren eta nerabeen garapen egokia ahalbidetuko duen ingurunea (fisikoa, ingurumenekoa, soziala, kulturala eta politikoa) eskaintzea, jolaserako, aisiako eta denbora librerako eskubidea erraztuz, eremu egokiak, hurbilak eta seguruak sortuz eta kontsumo arduratsua sustatuz, bai hiri-eremuetan, bai landa-eremuetan.
11. Haur eta nerabeek, eskubide osoko herritar gisa, benetan parte hartzen dutela bermatzea, haien gizarteratzea errazteko eta axola zaien gaiei buruz erabakiak hartzeko prozesuetan parte-har dezaten lortzeko.

## SIGLEN GLOSARIOA

|        |  |
|--------|--|
| MTAS   | Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa                                       |
| DGFI   | Familien eta Haurtzaroaren Zuzendaritza Nagusia                            |
| DGIS   | Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia  |
| DGCPSD | Ezintasunei buruko Politika Sektorialak Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusia |
| DGII   | Etorkinak Integratzeko Zuzendaritza Nagusia                                |
| AECI   | Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentzia                               |
| MAEX   | Atzerri-Arazoetako Ministerioa   |
| MEC    | Hezkuntza eta Zientzi Ministerioa  |
| FEMP   | Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioa                           |
| EIN    | Estatistikako Institutu Nazionala  |
| IZB    | Ikerketa-Zentro Bateratua  |
| KKLL   | Korporazio Lokalak   |
| AAEE   | Autonomia Erkidegoak   |
| CGPJ   | Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia                                      |
| GE     | Guraso-elkartea  |
| ACNUR  | Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa                             |
| GKE    | Gobernuz kanpoko Erakundea   |
| POI    | Haurtzaro Entitateen Plataforma  |



## 1. helburu estrategiakoa

Informazioko sistema iraunkorra eta partekatua finkatzea, Espainian haurtzaroaren egoera hobeto ezagutzeko helburuarekin.

### Neurriak:

|   | ENTITATEA            |   |
|---|----------------------|---|
|   | ESKUDUN              | LAGUNTZAILE   |
| 1.1 0-18 urte bitarteko tartea jasotzen duten estatistika-ustiaketa lerroak jartzea, sexua, adina eta habitata bereiztuz, eta metodologiak horretarako aukera emanez gero, haurtzaroan eragina duten alderdiak ere bereiztuz.   | EIN                  | MTAS, IZB, INJUVE, CSIC eta beste batzuk                              |
| 1.2 Haurtzaroa Babesteko Neurrien Buletin Estatistikoa sustatzea, Espainian haurtzaroaren babesari buruz deskribapen egokia izateko. Laguntza gehiago behar duten taldeetan arreta jartzeko ustiaketak sustatuko dira (atzerritarrak, tratu txarrak jasaten dituztenak, urritasunak dituzten haur edo nerabeak, etab.). | MTAS                 | AAEE  |
| 1.3 Adingabeko Arau-hausleentzat jarritako Neurrien Buletin Estatistikoa sustatuko da.  | MTAS                 | AAEE<br>Estatuko Fiskaltza Nagusia                                    |
| 1.4 Noizbehinka Espainiako haurtzaroaren gizarte-egoerari buruzko argitarapenak eta azterketak egitea, kontuan izanik Haurren Eskubideen Komiteak informazioa emateko beharra exijitzen duela.  | MTAS                 | AAEE<br>EIN<br>UNICEF<br>Haur eta nerabeen telefonoak<br>Defentsariak |
| 1.5 Haurtzaroaren Behatokia sustatzea, nazio-eremuan haurtzaroren alorrean lan egiten duten gizarte-eragile guztien artean informazioa trukatzeko sistema gisa.   | MTAS                 | AAEE<br>GKE<br>Ministerioak   |
| 1.6 Noizbehinka Espainiako haurtzaroari buruzko eta haurtzaroko zenbakiei buruzko argitarapenak edo buletinak abian jartzea.  | MTAS                 | EIN<br>Haur eta nerabeen telefonoak                                   |
| 1.7 Autonomia Erkidegoetan eta Toki Entitateetan Haurtzaroaren Behatokiak sorrera sustatzea, Administrazio Publikoetan haurtzaroaren politikei buruzko komunikazio- eta informazio-sistema koordinatua eratzeko helburuarekin.  | AAEE                 | FEMP<br>Unibertsitateak<br>Elkargo Profesionalak                      |
| 1.8 Eremu nazionalean, autonomikoan eta lokalean haurrentzat dagoen aurrekontuaren zenbatekoa eta proportzioa ahalik eta xehetasun handiarekin zehaztea; horrela bada, haurtzaroaren aldeko gastuen eragina eta ondorioak neurtu ahal izateko.  | AGEko Sailak<br>AAEE | GKE<br>KKLL   |
| 1.9 3 urtetik beherako arretarako, gurasoak lanean diren bitartean, ditugun zerbitzuen kopuru eta ezaugarriei buruzko informazio-sistema iraunkorra abian jartzea, sektorearen bilakaera ezagutzeko moduko sistema.   | AAEE<br>MEC          | MTAS  |
| 1.10 Akademia eta unibertsitateko ikerlariak ikerketa- irakaste- eta sentsibilizazio-jardueretan sartzeari, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak Haurtzaroari buruz egiten dituen jardueretan alegia.  | MTAS                 | Elkargo profesionalak<br>Unibertsitateak                              |
| 1.11 Haurtzaroaren nazioarteko egoerari buruzko ezagupena eta informazio-trukaketak sustatzea. Arreta berezia jarri behar da inguruko herrietan eta Latinoamerikan.   | MTAS                 | Unibertsitateak<br>Elkargo Profesionalak<br>OIT, OEA, IIN             |





## 2. helburu estrategikoa

Haurtzaroaren politikak hobetzea Administrazio Publikoen eta inplikaturako gainerako eragile eta entitateen arteko (bai eremu nazionalakoa, bai nazioarteko lankidetzako eremukoak) koordinazio eta lankidetzaren bitartez.

### Neurriak:

|   | ENTITATEA  |  |
|---|--|--|
|   | ESKUDUN  | LAGUNTZAILE  |
| 2.1 Haurtzaroaren plan integralak bultzatzea Autonomia Erkidego guztietan, baita abian jarritakoen ebaluazioa ere.  | AAEE   | Haurtzaroaren Behatokia                                  |
| 2.2 Haurtzaro eta nerabezaroari buruzko plan lokalak sustatzea.   | KKLL   | Haurtzaroaren Sare Lokala<br>GKE<br>FEMP<br>MTAS<br>AAEE |
| 2.3 Haurtzaroaren eskubideei eta nazioarteko eremuan gizarte-politiketan egiten den aplikazioari buruzko lankidetzarako jarduerak eta praktika onak zabaltzeko eta trukatzeko jarduerak zabaltzea.  | Atzerriko Arazoetako Ministerioa   | AAEE.<br>MTAS<br>GKE                                     |
| 2.4 Nazioarteko lankidetzarako jarduerak sustatzea, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren printzipioak guztiontzat zabaltzeko moduan. Nazioarteko lankidetzari hori adingabekoen jatorrizko herrietan haurtzaroa babesteko zerbitzuetara zuzendu behar da.  | Atzerriko Arazoetako Ministerioa (AECI)<br>Etorkinen Zuzendaritza Nagusia (DGII) | MTAS (DGFI)<br>Fiskaltza                                 |
| 2.5 Nazioarteko lankidetzako jarduerak sustatzea, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren printzipioetan eta Nazioarteko Adopzioen Hagako Hitzarmenean oinarritutakoak, eta jatorrizko herrietan garapenari laguntzeko programak sustatzea.   | Atzerriko Arazoetako Ministerioa   | MTAS (DGFI)<br>Etorkinen Zuzendaritza Nagusia            |
| 2.6 Autonomia Erkidegoekin adostutako jarduera-protokoloak ezartzea honako alor hauetan: informazio jasotzeko zerbitzuetan, nazioarteko adopzioen prestaketa egiteko zerbitzuetan, nazioarteko adopzio-eskaera egiteko zerbitzuetan, espedienteak tramitatzeko zerbitzuetan eta adopzio osteko zerbitzuetan.                    | MTAS (DGFI)  | AAEE<br>Nazioarteko Adopzioarako Entitate Laguntzaileak  |
| 2.7 Haurtzaroa babesteko gaiei buruzko jarduera-protokoloak sustatzea, nazio mailan inplikaturako eragileen laguntzarekin.  | MTAS   | AAEE<br>GKEak<br>Haur eta Nerabeen Telefonoa             |
| 2.8 Gurasoen eta adingabekoen babesaren erantzukizunaren alorrean eskumena duten agintarien artean lankidetzari eraginkorrerako kanal egonkorak finkatzea (administrazio publikoak, epaileak eta fiskalak); horrela bada, erkidegoko zein nazioarteko zuzenbidea aplikatu beharreko gaiak konpontzerakoan eraginkorrak izateko. | Justizia Ministerioa   | AAEE<br>MTAS   |



|  |                              |   |
|--|------------------------------|---|
| 2.9 Nazioarteko adopzioaren alorrean Ministerioen arteko koordinazioa erraztea era ez-formal batean (Atzerriko Arazoetako, Justizia, Barne eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak), nazioarteko adopzioen eskaera-espeditentia izapidetzen hasten denetik abian jartzen dena. | MTAS<br>MAEX                 | Barne-Ministerioa<br>Justizia Ministerioa |
| 2.10 Autonomia Erkidegoetan jatorriak biltzeko prozeduretan bitartekaritza-tresnen sorrera sustatzea; horrela bada, Espainiako arauak jatorri horri buruz ikertzeko onartzen duten eskubidea bermatuz.   | AAEE                         | MTAS<br>GKE                               |
| 2.11 Herrialdeen arteko informazio-sistema sustatzea, nazioarteko adopzioen prozeduren eta esperientzien trukaketari buruzkoa.   | MTAS                         | AAEE<br>SSI                               |
| 2.12 Behar bereziak dituzten adingabekoen adopziorako neurriak sustatzea   | AAEE                         | MTAS                                      |
| 2.13 Nazioarteko Adopzioaren Kontseilu Aholkularia ezartzea eta garatzea, maiatzaren 13ko 521/2005 Errege-dekretuaren bidez sortutakoa (2005eko ekainaren BOE), nazioarteko adopzioan inplikaturako sektore guztien parte hartzea eta lankidetzari hobetzeko helburuarekin.      | MTAS                         | AAEE, ECAI, Adopzio-guraso Elkarteak      |
| 2.14 1996ko urriaren 19ko Haga Hitzarmenaren berrespena sustatzea. Hitzarmena gurasoen eta adingabeak babesteko neurrien erantzukizunaren alorreko eskumenari, aplikatu daitezkeen legeei, onarpenari, gauzapeanari eta lankidetzari buruzkoa da.                                | Justizia Ministerioa         |   |
| 2.15 1/96 Lege Organikoan hobetzeko eta garatzeko aukerak aztertzea, Autonomia Erkidegoetan aplikazioarekin sortu diren beharretara egokitzeko helburuarekin.  | MTAS<br>Justizia Ministerioa | AAEE<br>GKE                               |
| 2.16 Bi alderdiko nazioarteko lankidetzari teknikorako jardueretan parte hartzea, haurtzaroren gaietan laguntza teknikoak eskatuz herriekin.   | MTAS (DGFI)<br>AECI          | MTAS<br>kontseilariak) (Lan-              |
| 2.17 Haurtzaroko programa espezializatuei buruzko nazioarteko jardueretan parte hartzea, bai alderdi bikoetan, bai aldedi anitzekoetan   | MAEX                         | MTAS                                      |



### 3. helburu estrategikoa

Familiantzako laguntzeko politiken sustapenean aurrera egitea; horrela bada, haurrak hazteko eta zaintzeko, haurren garapen pertsonala bultzatzeko eta haren gaitasunak sustatzeko orduan familiek duten erantzukizuna gauzatzen lagunduko zaie. Gainera lan-mundua eta familiarena adiskidetzeko aukera erraztu behar zaie.

#### Neurriak:

|  | ENTITATEA   |  |
|--|---|--|
|  | ESKUDUN   | LAGUNTZAILE  |
| 3.1 XXI. mendeko familien beharrei buruzko azterketak sustatzea, bai estatu mailan, bai Europa mailan. Arreta berezia jarriz familia bitartekaritzako zerbitzuetan, topaketarako guneetan eta familia-bizitza eta lan-mundua adiskidetzean.  | MTAS  | AAEE<br>Unibertsitatea<br>Elkargo<br>Profesionalak<br>Beste eragile batzuk |
| 3.2 Espainian familiekiko esku-hartze sozialaren eremuan egiten diren praktika onak konpartitzeko aukera erraztea, inplikaturako entitate publiko eta pribatu guztiekin oinarritzko printzipio adostu batzuk definitzeko.  | MTAS (DGFI)<br>AAEE                               | GKE  |
| 3.3 Familia-bizitza eta lan-mundua adiskidetzea honako jardueraren bitartez:<br><br>- 3 urtetik beherako haurrentzat kalitateko zerbitzuak gehitzea eta hobetzea.<br>- Gizarte-eragileen esku-hartzea sustatzea lan-mundua eta familiaren eta norberaren bizitza adiskidetzeko orduan.<br>- Adiskidetzeko gaien praktika onen trukaketa sustatzea.<br>- Gurasoen lan-ordutegien, baimenen eta haurrak zaintzeko lizentzien eremuan lege- eta gizarte-neurriak sustatzea. | MTAS<br>AAEE                                      | GKE<br>Gizarte Eragileak   |
| 3.4 Egoera berezietan dauden familiei laguntzeko programak sustatzea, urritasunak dituzten seme-alabak dituzten familiak barne.  | MTAS<br>(DGFI-DGCPD)<br>AAEE<br>Errege-Patronatua | GKE  |
| 3.5 Laguntza psiko-sozialerako neurriak sustatzea, arrisku-egoeran dauden, gizarte-ahultasun bereziko egoeran dauden edo guraso urritasunekin dituzten familietako haur eta nerabeentzat.  | MTAS<br>(DGFI)<br>AAEE<br>Errege-Patronatua       |  |
| 3.6 Kalitateko irizpideak ezartzerakoan aurrera egitea orientazio, familia bitartekaritza eta topaketarako guneetarako zerbitzuak garatzeko orduan.  | MTAS<br>(DGFI)<br>AAEE                            | KKLL   |
| 3.7 Adingabeko seme-alabak dituzten familien parte-hartzea sustatzea, elkarte-mugimenduen bidez, haurtzaroren eskubideak bultzatzeko helburuarekin.  | MTAS<br>AAEE.                                     | GKE  |
| 3.8 Ekintzak eta kanpainak egitea familien artean Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa jakinarazteko.  | MTAS<br>AAEE<br>KKLL                              | GKE  |
| 3.9 GKEak kudeatutako programak sustatzea eta garatzea. Honako programa hauek hain zuzen:<br><br>- Laguntza behar duten pertsonekin bizi duten familiei  | MTAS<br>AAEE                                      | ON<br>KKLL   |



|  |  |  |
|--|--|--|
| <p>laguntzekoak,</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Familia-bizitza eta lan-munduaren arteko adiskidetzea erraztekoak,</li> <li>- Zailtasun bereziko egoeretan dauden familiekin esku-hartzekoak</li> <li>- Familia-orientazio edo eta bitartekaritzako programak.</li> <li>- Familia abegiei laguntzeko programak</li> <li>- Familien topaketarako guneak</li> <li>- Urritasunaren bat duten haurren familiei laguntzekoak</li> </ul> |  |  |
| <p>3.10 Familientzako sentsibilizazio-ekintzak garatzea, haurrak eta nerabeen hazkuntzarako jarraibideak hobetzeko helburuarekin.</p>  | <p>MTAS<br/>AAEE<br/>KKLL</p>  | <p>GKE</p>   |
| <p>3.11 Familien topaketarako guneak finkatzea eta praktika onak sustatzea, baita profesionalen trebakuntza ere.</p>   | <p>MTAS<br/>CC AA</p>  | <p>Elkargo<br/>Profesionalak<br/>Unibertsitateak</p>   |
| <p>3.12 Familien Politiken Kontseilu Estatala sortzea, Administrazio publiko eta gizarte zibilaren arteko parte-hartze eta lankidetzarako bidea izango dena.</p>   | <p>MTAS</p>  | <p>AAEE<br/>GKE</p>  |
| <p>3.13 Ikastetxeekin eta osasun-zentroekin batera, haurren familietan genero-indarkeria egoerak azkar detektatzeko sistema sustatzea.</p>   | <p>MTAS<br/>(Gobernuaren<br/>Ordezkaritza<br/>Berezia<br/>Emakumearen<br/>indarkeriaren<br/>aurka)</p> | <p>Osasun eta<br/>Kontsumo M.<br/>Hezkuntza eta<br/>Zientzi M.<br/>AAEE<br/>Beste eragile<br/>batzuk</p> |



## 4. helburu estrategikoa

Haurtzaroaren eta nerabezaroaren eskubide, betebeharrak eta interesei buruzko sentsibilizazioa sustatzea; horretarako gizarteratzeko eta komunitateko gizarte-sareetako eszenatokitik inplikaturik dauden eragile guztiak mobilizatu behar ditugu.

### Neurriak:

|  | ENTITATEA                                  |   |
|--|--|---|
|  | ESKUDUN                                    | LAGUNTZAILE   |
| 4.1 Haurtzaroaren eta nerabezaroaren eskubideen jarrerei eta gizarte-pertzepzioari buruzko itemak eta gaiak sartzea IZBren barometro eta inkestetan eta bestelako iritzi-inkesta batzuetan.  | IZB  | MTAS  |
| 4.2 Haurtzaroaren eta nerabezaroaren eskubideei buruzko sentsibilizazio-jarduerak sustatzea, jende guztiari orokorrean eta haur eta nerabeekin lan egiten duten talde profesional guztiei zuzenduta (Polizia, abokatuak, epaileak, etab.). | MTAS (DGFI)                                | CC. AA<br>GKE<br>Haur etab.<br>Nerabeen<br>Telefonoak<br>Emakumearen<br>Instituta |
| 4.3 Haurtzaroaren Eskubideei buruzko Konbentzioekin lotutako kontzeptuak haur-ongizatearekin zerikusi zuzena duten karreraren hasierako prestakuntzaren curriculumean sartzea.   | MEC  | Unibertsitateak<br>Elkargo<br>Profesionalak<br>AAEE                               |
| 4.4 Zenbait ekintza egitea Haurtzaroaren Eskubideei buruzko Konbentzioaren testua eskola guztietara helarazteko, haurtzaroko bertsio egokituak eta Estatuko hizkuntza guztietako bertsioak eginez.   | MEC<br>AAEE<br>KKLL                        | MTAS<br>GKE   |
| 4.5 Haurtzaroaren Egun Unibertsala ospatzea, haurren parte-hartzea sustatzeko ekintzak eginez.   | MTAS<br>AAEE<br>KKLL                       | GKE   |
| 4.6 Haurtzaro eta Nerabezaroaren Plan Estrategiko Nazionala zabaltzea, haurtzaroko egokitutako bertsio batekin eta Estatuko beste hizkuntzetara egindako itzulpenekin.   | MTAS<br>CC AA                              | GKE<br>FEMP   |
| 4.7 Espainiak Konbentzioa aplikatzeko egin dituen txosten guztiak zabaltzea, baita Haurren Eskubideen Batzordeak txosten horiei egindako ohar eta gomendioak ere.  | MTAS (DGFI)<br>Haurtzaroaren<br>Behatokia  | AAEE<br>Unicef  |
| 4.8 Haurren eskubide, betebeharrak eta interesei buruzko web orrien sorrera sustatzea, profesionaleri, gurasoeri eta haurrei zuzendutakoak.  | MTAS<br>AAEE<br>Haurtzaroaren<br>Behatokia | GKE   |
| 4.9 Familietan indarkeriaren eta gorputz-zigorren aukerakoa hezkuntza-ereduen aldeko sentsibilizazio kanpainak sustatzea, gai horretan jarrera aldaketa sustatzeko.  | AAEE<br>MTAS                               | KKLL<br>GKE<br>Emakumearen<br>Instituta   |
| 4.10 Eskubide, behar eta ohitura osasuntsuei aldeko sentsibilizazio kanpainak sustatzea, 18 urtetik beherakoei zuzendutakoak.  | AAEE<br>MTAS                               | KKLL<br>GKE   |
| 4.11 Haurren eskubideei buruzko sentsibilizazio kanpainak sustatzea ekintza kulturalen bidez, betiere haurren eta nerabeen etnia-, hizkuntza- eta gizarte-dibertsitatea kontuan izanik.  | KULTURA M.                                 | AAEE<br>KKLL  |



|  |  |  |
|--|--|--|
| 4.12 Haurtzaroaren eta nerabezaroen eskubide eta beharren ezagutza sustatzea, estatu mailan erreferentziatzko dokumentu-zentroak sortuz.                   | MTAS (CEDISS)                                    | GKE (UNICEF, Save the Children,.....)  |
| 4.13 Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Sexu-esplotazioari buruzko Bigarren Ekintza Plana sustatzea, eta Estatuko hizkuntza guztietarako itzulpena sustatuz. | Haurtzaroaren Behatokia                          |  |
| 4.14 Sexu-abusuen, prostituzioaren, bidaietako sexu-esplotazioaren eta haur-pornografiaren aurkako sentsibilizazio kanpainak garatzea.                     | MTAS<br>BARNE M.<br>Turismoko<br>Idazkari Orokor | AAEE<br>GKE<br>OMT<br>Enpresa-sektorea |
| 4.15 Nesken eta mutilen arteko berdintasunaren aldeko kanpainak sustatzea, eta urritasunak dituztenei arreta berezia eskainik.                             | MTAS<br>(DGCPSD)<br>Errege<br>Patronatu          |  |
| 4.16 GKEekin ekintzak sustatzea pobreziaren prebentziorako eta haurren gizarte-bazterketaren aurkako programak egiteko.                                    | MTAS (DGIS)                                      | AAEE<br>ONG                            |



## 5. helburu estrategikoa

Komunikabideetan eta teknologia berrietan haurtzaroaren eskubideak eta babesa sustatzea.

### Neurriak:

|   | ENTITATEA  |   |
|---|--|---|
|   | ESKUDUN  | LAGUNTZAILE   |
| 5.1 Haurtzaroaren eskubideen babeserako eta sustapenerako ikus-entzunezko sektoreei eta komunikabideei zenbait ekintza zuzentzea (publizitatea, bideo-jokoak, prentsa, zinea, mugikorrak Internet). Kontu handia jarri behar da sexismoarekin eta indarkeriako adierazpenekin.    | Est. Tele. Idazk. (Industria)<br>Est. eta Tele. Idazk. (Presidentzia)  | Haurtzaroaren Behatokia<br>Emakumearen Institutua   |
| 5.2 Familian, eskolan eta gizarte osoan telebistari buruzko ikuspegi kritikoa, hezitzailea eta parte-hartzeko modukoa sustatzea, haurtzaroko administrazio publikoen, gizarte-entitateen eta ikus-entzunezko sektorearen bidez.   | MEC<br>AAEE  | MTAS<br>GKE<br>Ikus-entzunezko Sektorea   |
| 5.3 Haur gehiago telebista ikusten dauden denbora-tarteetan, telebista programen edukiak kontrolatzeko mekanismoak indartzea. Gainera gurasoen kontrola sustatu behar da, telebista-programei buruzko informazio egokia eta homogenea emanez.                                     | Industria M. (Est. Tele. Idazk.)   | Haurtzaroaren Behatokia<br>POI<br>Est. Tele. Idazk.   |
| 5.4 Ikus-entzunezko sektorearekin lankidetzak ekintzak sustatzea, balioetan hezteko programak egin ditzaten.  | Est. Tele. Idazk. (Industria)<br>Est. Kom. Idazk. (Presidentzia)   | GKE (POI)<br>MEC (CENICE eta Kirol Kontseilu Gorena)<br>Osasun M. (INC)<br>AAEE<br>Emakumearen Institutua |
| 5.5 Haurraren Nazioarteko Eguna dela-eta, prentsa, irrati eta telebistako lehiaketan zein web orrien lehiaketan deialdiak egitea, haurtzaroaren eskubidea sustatzea eta haurtzaroaren ikuspegi positiboa bultzatzea helburu duten artikulua, erreportaje eta kanpainak saritzeko. | AAEE.<br>Toki Entitateak   | GKE<br>MTAS   |
| 5.6 Zenbait ekintza sustatzea haur eta gazte guztiek interneten era arduratsuan sartzeko aukera izan dezaten; gainera gurasoentzako sentsibilizazio- eta trebakuntza-ekintzak sustatzea eta hezkuntza-sektorea inplikatzeko irakasleen trebakuntzaren bidez.                      | Industria M. (Teknologia eta informazio-gizarterako Estatuko Idazk.)   | Unibertsitatea<br>MEC<br>MTAS<br>AAEE   |
| 5.7 Haur eta nerabeek komunikabide eta teknologia berriekin duten harremanari buruzko azterketak egitea.  | MTAS (DGFI eta INJUVE)<br>Komunik. Estat. Idazk. (Presidentzia)  | GKEak<br>Elkargo Profesionalak<br>AAEE  |
| 5.8 Sarearen segurtasun-maila hobetzea iragazketa-sistemen, sektorearen auto-arauketaren kodeen eta salaketan bidez.  | Barne M. (Segurtasunerako Estatu Idazkari)<br>Industria M. (Teknologia eta informazio-gizarterako Estatu Idazk.) | GKE   |
| 5.9 Haurtzaroaren eta Nerabezeroen Sexu-esplotazioaren  | Industria M. (Teknologia eta   | GKE<br>Haurtzaroaren Behatokia  |



|  |   |                                |
|--|---|--------------------------------|
| aurkako Bigarren Ekintza-Planean, komunikabideei eta teknologia berriei dagokionez jasotako salaketa- eta kontrol-neurriak sustatzea.  | informazio-gizarterako Estatu Idazk) Barne M. (Segurtasunerako Estatu Idazk.) |                                |
| 5.10 Komunikabideetako profesionalen eta komunikazioan eta haurtzaroan aditu direnen arteko topaketak sustatzea, zenbait mintegi eta lan-talderen bitartez; horrela bada, esperientziak trukatu eta haurtzaroari eskainitako tarteak aztertuko dituzte, baita haurtzaroari buruz komunikabideek ematen duten gizarte-irudia aztertu ere. | Ikus-entzunezko Sektorea  | GKE<br>Haurtzaroaren Behatokia |
| 5.11 Urritasunak dituzten adingabekoentzat haurtzaroko eta gazteentzako orrialde erabilerrazak sustatzea.  | Errege Patronatua   | GKE                            |
| 5.12 Urritasunak dituzten adingabekoentzat ikus-entzunezko komunikazioekiko erabilerraztasunari laguntzea.   | Errege Patronatua   | GKE                            |





## 6. helburu estrategikoa

Haurtzaroaren eta nerabezaroaren gizarte-arreta eta esku-hartzea sustatzea arrisku, babes-eza edo urritasun egoeretan edo eta gizarte-bazterketa gertatzen denean. Horretarako kalitateko irizpide komunak eta praktika ebaluagarri hobeak ezarri behar dira..

### Neurriak:

|   | ENTITATEA  |  |
|---|--|--|
|   | ESKUDUN  | LAGUNTZAILE  |
| 6.1 Indarrean dagoen legea berrikustea, Konbentzioaren printzipio nagusiak (bereziki 2., 3., 6. eta 12. artikulua) eta nazioarteko beste konpromiso batzuk haurrei buruzko legeetan sartzeko.   | Justizia M.  | Unibertsitate-adituak<br>GKE<br>MTAS<br>Defentsariak                         |
| 6.2 Berrikusi behar da ordenamenduak zein adin ezartzen duen adingabeek egindako ekintzei garrantzi juridikoa emateko, eta Konbentzioaren printzipioekin bat datorren edo ez aztertu behar da.  | Justizia M.  | MTAS<br>AAEE   |
| 6.3 Espainian haurtzaroaren eta nerabezaroaren babes-ezaren eta arriskuaren prebentzioari buruzko azterketa sustatzea.<br><br>6.3.1. Etxean haurrek jasaten duten indarkeriari, tratu txarrei, sexu-abusuei eta guraso eta seme-alaben arteko harremanetan sor daitekeen edozein indarkeria-motari buruzko azterketa egitea, eta azterketak jaso behar du lurralde osoan zer eragin duten fenomeno horiek.<br><br>6.3.2. Haurrekiko tratu txar mota guztiak aztertzea, babesteko espedienteen azterketatik abiatuz.<br><br>6.3.3. Familia-eremuan indarkeriak neskatilengan, mutilengan eta nerabeengan duen eragin psikologikoari buruzko azterketak sustatzea; gainera sektore horretara zuzendutako baliabideak aztertu behar dira.<br><br>6.3.4. Bikote nerabeen arteko genero-indarkeriari buruzko azterketak egitea.<br><br>6.3.5. Estatu mailan haur-lanak duen eragina neurtzeko azterketak egitea.<br><br>6.3.6. Espainiako haur-pobrezia aztertzea eta, bereziki, belaunaldien artean pobrezia irauten edo igortzen den aztertu beharra dago. | MTAS. (DGFI, DGIS, INJUVE)<br>AAEE<br><br>Emakumeen aurkako Indarkeriaren Gobernu Ordezkaritza Berezia<br><br>Emakumeen aurkako Indarkeriaren Gobernu Ordezkaritza | Unibertsitateak<br>Elkargo Profesionalak<br>GKE<br>KKLL<br>Gizarte Eragileak |
| 6.4 Adingabeak babesteko zerbitzu espezializatuetan, kalitatea kudeatzeko sistemen ezarrera sustatzea eta finkatzea.  | MTAS<br>AAEE   | GKE  |
| 6.5 Tratu txarrak jasaten duten haurrentzat prebentziorako, antzemateko, arretarako eta lantzeko ekintzak sustatzea:  | MTAS<br>AAEE   | GKE<br>Errege Patronatua<br>Elkargo Profesionalak                            |



|   |   |   |
|---|---|---|
| <p>antzemateko, arretarako eta lantzeko ekintzak sustatzea:</p> <p>6.5.1 Zenbait programa esperimantal bultzatzea, hurrekiko tratu txarren eta esplotazioaren arretarako eta egoera horiei aurrea hartzekoak.</p> <p>6.5.2 Tratu txarrak jasan dituzten haurren errehabilitazio programak egin eta bultzatzeko orduan laguntzea.</p> <p>6.5.3 Herritarrentzat sentsibilizazio-kanpainak egitea, tratu txarrak antzemateko eta horiei aurrea hartzeko orduan lagundu dezaten. Eta antzemateko profesionalen aholkularitza eta trebakuntzak indartzea.</p> <p>6.5.4 Haurren tratu txarren kasuei, detekzioari eta jakinarazpenei buruzko erregistro bateratua egitea.</p> <p>6.5.5 Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen Informazio-Sisteman (SIUSS) esku-hartzeko modulua jartzea haurren tratu txarren kasuetarako.</p> <p>6.5.6 Jardunaldien antolaketa bultzatzea, haurren tratu txarrei arreta emateko eta aurrea hartzeko eremuan egin diren proiektu berrienak erakusteko, eta arreta berezia jarritz urritasunak dituzten haurrengan.</p> |   | <p>Haur eta Nerabearen Telefonoak</p>   |
| <p>6.6 Haurtzaro eta Nerabezeroaren abusu eta sexu-esplotazioaren II. Ekintza-Planean aurreikusitako neurriak gauzatzea; eta Plan horren ebaluazioa egitea.</p>   | <p>MTAS<br/>(Haurtzaroaren Behatokia)</p> | <p>Barne Ministerioa<br/>Turismoko Idaz. Nagusi<br/>Justizia M.<br/>Komunikazioen Estatu<br/>Idazk.<br/>GKE<br/>Fiskaltza</p> |
| <p>6.7 Haurtzaroan esku-hartzearen eremuan kalitate, ebaluazio, jarraipen eta praktika onen irizpideak definitzeko moduko protokoloak egitea. Protokolo horiek familia-abegien kasuan, egoitza-abegietan, adopzioetan eta familian zein gizartean eta familian barruan haurra babesteko zerbitzuetan aplikatu ahal izango dira.</p>   | <p>MTAS<br/>AAEE</p>                      | <p>GKEak</p>  |
| <p>6.8 Arriskuan dauden harrei buruzko prestakuntza-ekintzak eta profesionalen praktika onak sustatzea; horretarako, prestakuntza-metodologia egokienak erabiliz eta Internet bidezko prestakuntza sustatuz.</p>  | <p>MTAS<br/>AAEE</p>                      | <p>MAP<br/>GKE<br/>FEMP</p>   |
| <p>6.9 Adingabekoa defendatzeko berariazko organoen sorrera sustatzea.</p>  | <p>AAEE<br/>KKLL</p>                      | <p>Defentsariak</p>   |
| <p>6.10 Familia-abegien irudia sustatzeko honako neurri hauen bitartez, beste batzuen artean:</p> <p>6.10.1. Gai hori lantzeko orduan bateratzeko protokoloak finkatzea, betez ere familia abegiak hautatzeko eta prestatzeko irizpideei dagokionez, laguntzeko sareak sortzeko eta familiei arreta egiteko (bai biologikoei, bai abegiei).</p> <p>6.10.2. Presazko familia-abegia sustatzea eta indartzea adingabekoaren egoera berezia dela-eta, hasiera-hasieratik familia-giroan bizitzeko beharra ikusten denean.</p> <p>6.10.3. Legeak berrikusi familia-abegien prozesu judizialeterako epeak finkatzeko, betiere adingabekoaren</p>   | <p>AAEE</p>                               | <p>MTAS<br/>GKE</p>   |



|  |   |   |
|--|---|---|
| onurarako.<br><br>6.10.4. Profesionalizatutako familia-abegia sustatzea, baita Abegiaren Estatutua ere.  |   |   |
| 6.11 Emantzipazio prozesuan diren tutoretzapeko adingabe ohientzat, norberaren autonomia sustatzeko programak finkatzea eta elkarbizitzarako eta lan eta gizarte integrazioarako eremua eskaintzea.  | CC AA<br>MTAS                                   | GKE   |
| 6.12 Inmigranteak Integratzeko Plan Estrategikoaren eremuan, atzerritar adingabekoentzako programak eta baliabideak saritzea, kulturen arteko ikuspegi batetik abiatuz eta arreta berezia jarriz ahultasun egoeretan daudenei eta bakarrik dauden adingabekoei.                                      | MTAS (Inmigrazio eta Emigrazioko Estatu Idazk.) | MTAS (DGFI)<br>AAEE   |
| 6.13 Jatorrizko herrietan migrazioari aurrea hartzeko neurriak ezarri bakarrik datozen adingabe atzerritarrentzat.   | MAEX (AECI)<br>MTAS (DGII)                      | MTAS (DGFI)<br>AAEE   |
| 6.14 Bakarrik dauden Atzerritar Adingabekoein Lan egiteko Protokoloaren aplikazioren jarraipena egitea eta inplikaturako eragileei beharrezko proposamenak egitea.   | Hautzaroaren Behatokia                          | AAEE<br>GKE<br>MTAS<br>Barne M.<br>AECI<br>ACNUR<br>Estatuko Fiskaltza<br>Nagusia<br>Defentsariak |
| 6.15 Gizarteratzeko Ekintza-Plan Nazionalean pobrezia gizar-<br>bazterketaren aurkako berariazko neurriak sustatzea.   | MTAS (DGIS)                                     | AAEE  |
| 6.16 Prozesu penalaren erreforma bultzatzea delituen biktima diren adingabekoen eskubideak sustatzeko.   | Justizia M.                                     | AAEE  |
| 6.17 Zenbait programa egitea urritasunik duten gazteak emantzipatzen eta lan-munduan sartzen laguntzeko.   | Errege Patronatua<br>MTAS<br>(DGCPD)            | AAEE  |
| 6.18 Jokabide-nahasketak dituzten adingabekoen arreta harmonizatze bideak aztertzea eta bilatzea.  | AAEE  | MTAS (DGFI)   |
| 6.19 Pentsioak Bermatzeko Fondoaren arautzen duen Legea sustatzea, 15/2005 Legearen xedapen gehigarri bakarra aurreikusten duena, epaile-hitzarmenaren edo epaileen erabaki bidez onartu diren adingabe seme-alaben elikadura-ordainketak eta ez ordaindutako kopuruak bermatzeko.                   | Justizia M.                                     |   |
| 6.20 Hiru urtetik behera duten eta urritasun handiak dituzten adingabekoentzat Arretarako Plan Integrala egitea, arreta goiztiarra eta gaitasun fisiko, mental eta intelektualen errehabilitazioa errazteko. Plana Mendekotasuneko Sistema Nazionalaren Lurralde Kontseiluan egin beharko litzateke. | MTAS<br>AAEE                                    |   |



## 7. helburu estrategikoa

Hautzaro eta nerabezaroko taldeetan jarduerak areagotzea, prebentzioko eta errehabilitazioko mekanismoak ezarriz gizarte-gatazka egoeren aurrean.

### Neurriak:

|  | ENTITATEA    |   |
|--|--------------|---|
|  | ESKUDUN      | LAGUNTZAILE   |
| 7.1 Gaur egun Espainian gizarte-gatazkan diren haurren egoera aztertzea, jarduera-eremu guztietan inplikaturik duden erakunde eta eragile guztien laguntzarekin.   | MTAS<br>AAEE | Unibertsitateak<br>Fiskaltza                                  |
| 7.2 Adingabekoen erantzukizun penaleko zerbitzu espezializatuaren kalitatea kudeatzeko sistemaren ezarrera sustatzea.  | MTAS<br>AAEE | Fiskaltza<br>GKE  |
| 7.3 Arrakasta-faktoreak identifikatzera zuzendutako ikerketak sustatzea. Faktore horiek askotan lotuta daude arau-hausle txikiekin esku-hartzeko programa eraginkorrenekin.  | MTAS<br>AAEE | Unibertsitateak<br>Fiskaltza<br>Gizarte Eragileak             |
| 7.4 Gizarte-gatazka egoeran dauden haurren egoeretan, kalitateko, ebaluazioko, jarraipeneko eta praktika oneneko irizpide eta baldintzetan aurrera egitea. Horiek guztiak aplikatu daitezke honako zerbitzu espezializatu hauetan: internamendu neurriak gauzatzekoak, erdi irekikoak eta bitartekaritzako eta epaiketaz besteko zuzenketako zerbitzuetan. | MTAS<br>AAEE |   |
| 7.5 Atzerriko adingabeko arau-hausleekin zenbait esku-hartzeko praktika finkatzea, betiere adinaren, benetan gizarteratzeko dituzten aukeren eta lan-munduan sartzeko edo aurreko prestakuntzarako dituzten aukeren arabera.   | MTAS<br>AAEE | Estatuko<br>Fiskaltza Nagusia<br>Estatu At.<br>Inmigrazioa    |
| 7.6 Gizarte-gatazka egoeran diren haurrekin prestakuntzarako ekintzak eta praktika profesional onak sustatzea, horretarako prestakuntza-praktika egokienak erabiliz eta Internet bidezko prestakuntzak sustatuz.   | MTAS<br>AAEE | MAP<br>KKLL<br>CGPJ   |
| 7.7 Adingabeko arau-hausleentzat zenbait neurri gauzatzeko programak egitea: adingabekoen epaileek ematen dituzten neurriez oso bestelakoak eta Autonomia Erkidegoko profesionalak trebatzea.  | AAEE         | MTAS  |
| 7.8 Zailtasun edo eta gizarte-gatazka egoeran diren adingabekoentzat egoitza-ekipamenduak jartzeko programak sustatzea eta egitea, baita internamenduz besteko neurriak aplikatzeko programa esperimentalak ere.   | MTAS         | GKE   |
| 7.9 5/2000 Legearen Araudiaren ebaluazioarekin laguntzea.  | Justizia M.  | MTAS<br>AAEE<br>Estatuko<br>Fiskaltza Nagusia<br>Defentsariak |
| 7.10 Profesionalen koordinazioa eta eskumenen hobekuntzak sustatzea, mintegi eta jardunaldien bitartez praktika onak trukatzeko aukerak eskainiz.  | MTAS<br>AAEE | CGPJ  |
| 7.11 Berariazko programak sustatzea adingabeko sexu-erasotzaileekin lan egiteko.   | AAEE<br>MTAS | GKE<br>Estatuko<br>Fiskaltza Nagusia                          |



|   |  |                           |
|---|--|---------------------------|
| 7.12 Laguntzeko programak sustatzea gizarte-gatazka egoeran dauden adingabekoen familientzat                                  | AAEE<br>KKLL                             | GKE                       |
| 7.13 Zenbait ekintza bultzatzea talde bortitzen edo antolatzaileen (bandak) sorrerari aurrea hartzeko edo sorrera saihesteko. | Barne M.<br>(Segurtasuneko<br>Estatu A.) | Kirol Kontseilu<br>Gorena |



## 8. helburu estrategikoa

Kalitateko hezkuntza bermatzea guztientzat. Hezkuntza horren ezaugarriak honako hauek izan behar dira: balioetan hezte, dibertsitateari arreta egitea eta genero-ikuspegitik berdintasunean aurrera egitea; gainera kultura arteko hezkuntza eta gutxiengoekiko errespetua sustatu behar du, desberdintasunak konpentsatu behar ditu eta hasierako urteetatik nerabezarora arte gaitasunen garapen handiena ziurtatu behar du etengabeko arretaren bitartez.

### Neurriak:

|  | ENTITATEA  |  |
|--|--|--|
|  | ESKUDUN  | LAGUNTZAILE  |
| 8.1 Esperientzien trukea sustatzea 3 urtetik beherakoentzako jarduera hezigarriak eta ludikoak direla eta.   | MEC  | MTAS<br>FEMP   |
| 8.2 Gurasoek lan egiten dauden bitartean, 3 urtetik beherakoei zuzendutako zerbitzuen kalitatea handitzea eta hobetzea, Europar Batasunaren parametroetara hurbilduz (haurren zainketari buruzko gomendioak eta zentro publikoetan %33ko estaldura izatea).  | MEC<br>Hezkuntza<br>Kontseilaritza<br>AAEE                 | FEMP<br>KKLL   |
| 8.3 Gutxieneko kalitatearen baldintzak betetzea 3 urtetik beherakoentzako zerbitzuetan.  | MEC<br>AAEE  | MTAS<br>FEMP   |
